



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

Gradu Amaierako Lana

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2014/2015 ikasturtea

ONDARROAKO HAURREN JARIOTASUNA ETA LEXIKOAREN AZTERKETA

Egilea: Naia Goitia Azpiri

Zuzendaria: Mikel Iruskieta Quintian

Leioan, 2015eko irailaren 17an

AURKIBIDEA

Sarrera	4
1. Marko teorikoa	6
2. Metodologia	10
2.1. Informatzaileak lortu	10
2.2. Corpora	10
2.3. Grabaketa	12
2.4. Transkribapena	12
2.5. Azterketa linguistikoa	16
2.6. Proposamen didaktikoa	17
3. Ondarroako haur hezkuntzako hizkeraren azterketa	17
3.1. Hitz jarioa	17
3.2. Lexikoa	19
4. Ondorioak	21
5. Erreferentzia bibliografikoak	23
Eranskinak	25
1. Eranskina. Galdetegia	25

ONDARROAKO HAUREN JARIOTASUNA ETA LEXIKOAREN AZTERKETA

Naia Goitia Azpiri

UPV/EHU

Jakina da eskolan arrakasta izateko hizkuntzaren erabilera aldagai garrantzitsua dela. Hori horrela, lan honetan 4-7 urte bitarteko hamabi neska mutilen jarioasuna eta lexikoaren ezagutza aztertzen dira. Betiere, kontuan izanda haur horien ama hizkuntza ezberdina dela, hots, euskara edota erdara (atzerriko edozein hizkuntza). Helburua herriko hizkera lagunartean (eskolan) bertan gauzatzen dela frogatzea da. Horretarako, haur hauek galdetegi baten bidez elkarrizketatu dira. Jarraian transkribatu eta honen azterketa linguistikoa egin da, jarioasuna eta lexiko aztertuz. Azkenik, konparaketa taulez baliatuz galdetegietako emaitzak aztertu dira eta zenbait haurrek hitz egiterako orduan erakusten duten jarioasuna handitu ahal izateko eskolan lantzeko zenbait proposamen egin dira.

Jarioasuna, lexikoa, eskola, ama hizkuntza, erabilera

Es sabido que el uso de lenguaje es una variable importante para tener éxito en la escuela. Por eso, en este trabajo se han examinado la fluidez y el conocimiento de niños y niñas de entre 4-7 años. Siempre teniendo en cuenta que la lengua materna es diferente, pudiendo ser euskara o cualquier otra lengua extranjera. El objetivo es probar que el dialecto del pueblo se materializa entre amigos (en la escuela). Para ello, estos niños y niñas han sido entrevistados mediante un cuestionario. Seguidamente la entrevista ha sido transcrita y se ha hecho un examen lingüístico, centrándose en la fluidez y el léxico. Para finalizar, se han analizado los resultados de los cuestionarios mediante tablas comparativas y se han propuesto unos ejercicios para mejorar la fluidez de los niños y niñas.

Fluidez, léxico, escuela, lengua materna, uso

It is known that the use of language is an important variable to succeed in school. Therefore, in this work are examined the fluency and knowledge of children aged 4-7 years. Always bearing in mind that the mother tongue is different and may be Basque or any other foreign language. The aim is to prove that the dialect of the people materializes between friends (in school). To do this, these children were interviewed using a questionnaire. Then the interview was transcribed and has become a linguistic examination, focusing on fluency and vocabulary. Finally, we have analyzed the results of questionnaires by comparative tables and exercises have been proposed to improve the fluidity of children.

Fluency, vocabulary, school, mother tongue, use

Sarrera

Euskaldun zaharra izateak harro sentitzea esan nahi du, munduko hizkuntzarik zaharrena jaiotzatik entzun eta naturaltasun osoz egunero erabiltzeak dakarren harrotasuna. Halaxe sentitzen naiz egunero begiak irekitzean. Harro sentitzen naiz euskalduna izateaz, eta baita “euskahalduna” izateaz. Gainera, ikerketen arabera, kalean euskara gehien entzuten den Bizkaiko herri arrantzalekoa naiz, Ondarrutarra, eta horrek euskara beste ikuspuntu batetik ikusteko aukera eman dit, inoiz baino biziago ikusteko aukera hain zuzen. Herri arrantzalea izanik, euskaraz aparte beste hizkuntza batzuekin kontaktuan egon da herriko hizkera, hala nola, ingelesa, frantsesa, galiziera... baina horrek euskara kaltetu beharrean, urteak joan eta urteak etorri kaleetan ez da entzun euskara baino gehiago hitz egiten den hizkuntzarik, baita etorkinen artean ere.

Hori izan da lan hau eusten duen galdera, ama hizkuntza edozein dela ere, euskararen ezagutza eta erabilera bermatuta al daude Ondarroan? Hori frogatzeko herritar txikiengan zentratu naiz, hauek baitira herriaren etorkizuna. Gainera euskaldun zaharra izateak haurrengana zuzentzeko orduan ziurtasuna ematen zidan, elkarrizketa formala izan arren, beraiengana zuzentzerako orduan hizkuntza ez-formalean zuzentzeko gai sentitzen naizelako, eta hori euskaldun berri batean kasuan ezinezkoa litzateke, gaur egun oraindik garrantzi gehiago ematen baitzaio hizkuntza formalari, ez-formalari baino.

Esan bezala, lan hau hurrei egindako zenbait elkarrizketetan oinarritzen da. Ama hizkuntza eta adin ezberdinetako 12 haurren elkarrizketan, hain zuzen ere. Etxetik hizkuntza eredu ezberdina badaukate ere, eskolako eredu guztientzat da bera, ikastetxe bereko ikasleak baitira guztiak. Elkarrizketa gauzatu ostean, haurren hitzak transkribatu nituen, jarraian hauekin azterketa linguistiko bat egiteko, eta nire hasierako hipotesia betetzen zen ala ez jakiteko, hots, herriko hizkeraren jabetzea lagunartean (eskolan) bertan gauzatzen dela eta ez dela nabaritzen inolako ezberdintasunik, etxetik dakarten hizkuntza edozein izanda ere. Azterketa linguistiko horretan hizkuntzaren bi aspektu aztertu ditut: jariotasuna eta lexikoa (hiztegia).

Ikerketaren emaitzak aztertzeko konparaketa taulak erabili dira, hauei esker errazago ikusten baitira aztertutako. Datu horiek haurren elkarrizketen transkribapenekin lotura zuzena dute, eta hori dela eta, tauletan bertan agertzen dira erreferentziak.

Lan hau orain arte graduan lortutako ezagutzekin egindako ikerketa xume bat besterik ez da, esan beharra dago, etorkizunean eta ikerketa talde lan handiago batekin mami gehiago atera dakiokela Ondarroako Haur Hezkuntzako 12 haur hauei egindako elkarrizketei. Gainera, ikerketa hau egiteko teknologiaz baliatuz gero emaitza zehatzagoak aterako lirateke, baina ez da izan hori nire helburua, irakurlearentzat ahal bezain ulergarriena eta errazena izatea baizik.

Gainera, gaur egun euskara ikasten ari den edozeini zuzendua dago lan hau, izan ere, lan honen bidez frogatu nahi izan da ama hizkuntza edozein delarik ere hizkuntza bat ikasteko erabili beharra dagoela, eta inguruak lagundu ezean ezinezkoa dela hori lortzea, hots, hizkuntza bat ikastea, liburuetan azaltzen diren arauak eta hitzak ikastea baino haratago doala, eta hizkuntza bat erabiliz ikasten dela, hasiera batean okerrak eginez baina hauek gaindituz eta norbere buruarengan konfiantza izanez.

1. MARKO TEORIKOA

Gaian bete-betean sartu aurretik beharrezkoa da Ondarroako hizkeraren nondik norakoak aztertzea. Esan beharra dago, Bizkaia eta Gipuzkoako mugan dagoen herri arrantzale honek nortasun handiko hizkera duela, gainontzeko herrietako hizkeretatik bereizten dituen ezaugarriekin. Hori horrela izanik, hurrengo lerroetan Koldo Zuazo euskal hizkuntzalariak egindako ikerketak aipatuko dira, betiere kontuan izanik Ondarroako hizkera “bizkaieraren” azpi euskalki bat dela eta ezaugarri asko berdinak liratekeela.

Koldo Zuazok (1998) euskalkien inguruan egindako ikerketen emaitzen arabera euskara 6 euskalkitan bana daiteke: mendebaldekoa, erdialdekoa, ekialdeko nafarra, nafarra, nafar-lapurterra eta zuberotarra. Hortaz, mapa honen arabera, Ondarroako hizkera mendebaldekoa da (bizkaiera).



1. Irudia. Euskalkien mapa (Koldo Zuazo, 1998)

Euskalkien banaketa egiteaz gain, azpieuskalkiak ere aztertu zituen Zuazok (1998). Mendebaldeko euskalkiari dagokionez, bitan banatu eta izendatu zituen, sartaldekoa (mendebaldekoa) eta sortaldekoa (ekialdekoa). Hona hemen Zuazok sortaldeko azpieuskalkiaren inguruan dioena: “Sortaldeko azpieuskalkian hizkera hauek daude: Lea-Artibai eta Durangaldekoa,

Debagoienekoa eta Deba ibarreko erdigunekoa. Lea-Artibaikoa eta Durangaldekoa oso antzekoak dira, itsasbazterreko hizkerak –Ondarroa eta Lekeitio– nortasun handikoak badira ere”.

Zuazok berak 2014.urtean sortutako “Euskalkiak” izeneko webgunean¹ aurki daitezke mendebaldeko euskalki honen ezaugarri bereizgarrienak, hots, besteengandik bereizten dutenak.

Euskalkiaren ezaugarriak (Morfologia)

• **Izenaren morfologia**

1. Soziatiboko atzizki berezia dago mendebal gehiengan: **-gaz** singularrean, eta **-kaz** pluralean.
2. Hirugarren graduko erakuslea **ha** da, ez *hura*.
3. **Neuk** tankerako izenordain indartuak bakarrik erabiltzen dira.
4. Erdal **-(c)ión** amaiera **-(z)íño** bilakatu da: *habitaziño, kalefaziño...*
5. **-txo / -txu** txikigarria da aukera bakarra; ez dago *-xe* atzizkirik.

• **Aditzaren morfologia**


1. **Edun*-en erroa **-o-** edo **-au-** da, adizkien arabera. Iraganaldiko batzuetan **-eu-** ere bai: *dot, dau, baleu*.
2. Nor-Nori-Nork saileko erroa **eutsi* da: *detsat, gentsan*.
3. Iraganaldiko **hirugarren pertsonetan Ø** ezaugarria dago mendebaleko hizkera gehienetan: *ekarren, ekixen...*
4. Aditz izenak osatzeko aukera zabala dago: **-ten** (*ekarten*), **-etan** (*kantetan*), **-tuten** (*defendiruten*), **-ketan** (*bigunketan*), **-tzean** (*sartzean*).

Zuazok ezaugarri gehiago aipatzen baditu ere, hauek dira nire ustez, Ondarroako herri hizkeran ikus daitezkeen ezaugarriarik nabarmenenak.

Ondarroa betidanik izan da herri euskalduna, eta hori frogatzeko udalak, 2011. urtean Soziolinguistika klusterrari kalez kaleko euskararen erabilera neurtzeko ikerketa bat egiteko eskaera egin zion, ikerketa horretan lortutako

¹ <http://www.euskalkiak.eu/site/ezaugarriak.php>

emaitzek egiaztatu egiten dute, euskararen erabilera Ondarroan oso handia dela.



2. Irudia. Ondarroan euskararen kalez kaleko erabilera (Soziolinguistika klusterra)²

Aurreko irudi horretan argi ikus daiteke, kalean euskara gehien erabiltzen duen taldea haurrak direla. Baina kontuan izan behar da haur horien ama hizkuntza ezberdina izan daitekeela, eta beraz, horrek hizkeran ezberdintasunak sor ditzakeela. Haur batetik bestera sor daitezkeen ezberdintasun linguistikoak neurtu ahal izateko beraiekin elkarrizketa bat egitea da aproposena. Horretarako Unicef-ek³ (2006) haur eta gazteekin elkarrizketa bat egiteko jarraitu beharreko pausuak kontuan hartu dira:

- *Sentsibilitatez entzun haurrak. Honek esan nahi du, ez dugula bakarrik beraien hitzak entzun behar baizik euren sentimenduak eta elkarrizketako gaiak beraiegan duen eragina kontuan izan.*
- *Geure burua aurkeztu, non lan egiten dugun eta zer egiten dugun, elkarrizketaren helburua zein den azaldu [...]*

Edozein delarik haurren ama hizkuntza, hurrek euskara ikasi eta erabileraren lehenengo urratsak eskolan emango dituzte, hori dela eta

² http://www.ondarroa.eu/eu-ES/Zerbitzuak/Euskara/Documents/2011_euskararen-kale-erabilera-neurketa.pdf

³ http://www.unicef.org/argentina/spanish/2.Entrevistar_a_los_ninos_y_ninas.pdf

funtsezkoa da eskolan euskarari eta herriko hizkerari ematen zaion trataera. Honen harira Maiak (2006:11) honako hau esan zuen estandarra eta dialektoak irakaskuntzan nola ulertu eta tratatu behar direnaren inguruan:

[...] Haur Hezkuntzan, herriko berbetan egitea, ahal den bestean (irakasleak baldin badaki hori; ez badaki, gutxienean sentiberatasuna eta errespetua erakutsi behar luke herriko formen aurrean). Jokabide horren helburuak lirateke ikasleei traumarik ez sortzea, etxeko hizkuntza-ereduarekin lotura egitea, eta horrela hizkuntzaren jasotze prozesua modu naturalagoanosatzea eta aberastea.[...] (Maia, 2006: 11)

Hala eta guztiz ere, irakaslearen papera ez ezik ikasgelan sortzen den giroa ere garrantzitsua da haurrek euskara ikasi eta erabiliko duten eremutako bat izango baita. Bertan ama hizkuntza ezberdina duten haurrak bilduko dira, eta hori dela eta, Arrietak (2005: 751) proposatzen duen metodologia parte hartzailea oso interesgarria da, guztien artean euskara ikasteko tresna ez ezik, jolasteko tresna ere bilakatzeko.

[...] metodologia parte hartzaileari egin beharko litzaioke lekua, irakaslearena izan ez dadin input bakarra ikasgelan. Hortxe agertzen zaigu etxetik euskaldun datozen neska-mutilen eta erdaldun datozenen arteko ekarri desberdina, atxikitze-eredukoek (etxetiko euskaldunek) jarioan, egokitasunean, erregistroetan lagunduko digute, murgiltze-eredukoek, (hau da, familia erdaldunetatik etorriek) batez ere, gaitasun komunikatiboan. (Arrieta, 2005:751)

2. METODOLOGIA

Lan honen bidez, hasieran planteatutako hipotesia betetzen den ala ez frogatu nahi da, hau da, herriko hizkeraren jabetzea lagunartean (eskolan) bertan gauzatzen dela eta ez dela nabaritzen inolako ezberdintasunik, etxetik dakarten hizkuntza edozein izanda ere. Horretarako, atal honetan, zer eta nola egin den azalduko da.

2.1. Informatzaileak lortu

Lehenengo eta behin, elkarrizketatu beharreko haurrak aukeratu nituen. Hain zuzen ere, 4-7 urte bitarteko hamabi ikasle hautatu dira. Ikasleek etxetik dakarten hizkuntza egoera ezberdina da, hots, guraso euskaldunak eta guraso erdaldunak (bai gaztelaniadunak eta baita atzerriko hizkuntza ezberdindunak ere). Hala ere, guztiek dute ezaugarri bera, Ondarroako Eskola Publikoan ikasten dutela, hots, egunerokotasunean hizkuntza bera darabilte, elkarrengandik eta irakasleengandik ikasten dutena, halaber, herriko hizkera (ondarrutarra).

2.2. Corpusa

Informatzaileak lortu ondoren, galdetegia egin da. Galdetegia osatzeko, haurrak elkarrizketatzerako orduan Unicef-ek (2006)⁴ proposatutako jarraibideak hartu dira kontuan:

- Hurrei beraiei gertatu zaien istorio bat kontatzeko eskatu.
- Gaiarekin lotura duten argazki edo irudiak erakutsi.
- Galdetegiari amaitzen dagoela adierazi, beraiek gehitu nahi duten zerbait baldin badago.

Galdetegia (eranskinetan ikusgai) lau zatitan banatuta dago. Lehenengo eta behin, haurraren konfiantza lortzeko galdera pertsonalak azaltzen dira: zenbat urte dituen, norekin bizi den, zer gustatzen zaion... Ondoren haurren hitz egiteko gaitasuna eta jarioasuna neurtzeko asmoarekin istorioen atala agertzen da. Atal honetan bi azpi atal bereiz daitezke: haurrari gertatutako

⁴ http://www.unicef.org/argentina/spanish/2.Entrevistar_a_los_ninos_y_ninas.pdf

istorio barregarri bat kontatzea eta Llanso-ren (1990) “Animaladas” izeneko lau binetako komiki⁵ bat ahoz goran kontatzea. Jarraian, herriko hizkeraren ezagutza neurtzeko herriko hizkeraren hitz berezi batzuen esanahia galdetzen zaie. Azkenik, eta galdetegiaren amaiera gisa etorkizun hurbilean egingo dutenaren inguruan galdetzen zaie, hots, udan egingo dutena.

Galdetegia bera oso laburra da, sei galdera besterik ez ditu, baina hurrekin konfidatuzko eremu bat sortzeko aurretiaz ikastetxera bisita egitea beharrezkoa izan zen, eta gainera, egin nahi nuen lana egiteko beraien laguntza ezinbestekoa zela azaldu nien.

Honez gain, lortutako corpora Ixa taldearen hizkuntza aztertzeko programa baten bidez aztertu daiteke. Behean ikusten den 3. Irudian agertzen den bezala kategoria ezberdinetako hitzak sar daitezke, eta hurrek zenbatetan erabiltzen duten aztertu, baita hitz horiek erabiltzen duten esaldiak zeintzuk diren. Adibidez, 4. Irudian ikus daiteke “hau” erakuslea idatziz gero “hau” hitza erabiltzen duten hurren esaldiak ageri dira. Honek erabilera zuzena ala okerra den aztertzea ahalbidetzen du.

Haurren ahozko testuak (Ondarroa)

3. Irudia. Haurren ahozko testuak aztertzeko programa

Haurren ahozko testuak (Ondarroa)

Dokumentua	Sent Id	Hitza(k)	UZ	Esaldia	
1 H11-7U-EUS.txt3.lemnk.xml	sent53	hau	EZ	Eske txakurrak nahidau emoti aude eta gedo e bedak hartzendau txakurrak hodi (...) hodi (...) e hau zelan deitzen da ?	Aurreko eta ondorengo esaldiak
2 H11-7U-EUS.txt3.lemnk.xml	sent90	hau	EZ	da hau benetako txakurrak alkoban ein ?	Aurreko eta ondorengo esaldiak
3 H1-6U-EUS.txt3.lemnk.xml	sent116	hau	EZ	Ez ze hau tente ra eta bestik ezinddabe .	Aurreko eta ondorengo esaldiak
4 H1-6U-EUS.txt3.lemnk.xml	sent268	hau	EZ	Aber nik esaten batzut hau maxe , hau maxe eongo bazan apartia zelan esango zintzan ?	Aurreko eta ondorengo esaldiak
5 H1-6U-	sent368	hau	EZ	Ahar nik esaten batzut hau maxe , hau maxe eongo bazan apartia zelan esango zintzan ?	Aurreko eta

4. Irudia. Haurren ahozko testuak aztertzeko programaren adibide bat

⁵ Llanso, D. (1990). Animaladas. Revista Billiken.

2.3. Grabaketa

Ikerketa honen hurrengo pausua grabaketa izan da. Haurrek hitz egiterako orduan izan dezaketen ezberdintasunak aztertzeko, hain zuzen ere. Grabaketak “*Philips VoiceTracer 7780*” batekin egin dira, betiere isiltasuna dagoen leku itxi batean.

2.4. Transkribapena

Grabaketarekin lortutako transkribatu beharra zegoen, hori dela eta, transkribatzerako orduan jarraitu beharreko arau ezberdinak irakurri eta konparatu nituen. Olabarri-k (1997) testuak transkribatzerako orduan jarraitu beharreko irizpide ezberdinak proposatzen ditu. Euskal herriko ahozko ondarea eta herri hizkerak bildu eta hedatzea helburu duen proiektuaren webgunea (www.ahotsak.com) bisitatu eta bertan transkribapena ulermena errazteko egina zegoen, hau da, elkarrizketatuak dioena besterik ez da idazten. Etxaburu-k (2005) bere doktorego tesian dioen bezala “*elkarrizketatuak esandakoari eta esandako moduari al bait zuzenen lotu natzaio, [...] ez baitago ahozko euskara transkribatzeko era bateraturik*”. (Etxaburu, 2005: 28).

Beraz, lan guztia transkribapenetan oinarrituta dago, hots, azterketa linguistikoa egiterako orduan bertara jo dut esaldiak eta hitzak ikertzeko. Transkribapenak tauletan idatziak daude, lerro bakoitzean esaldi bat agertzen da, hots, nagusiaren galderak “N” letra larriz agertzen dira eta haurren erantzunak “H” letraren bidez. Transkribapen bakoitzak bere izenburua dauka. Lehenengo eta behin, haur bakoitza ezberdinduko duen “izena” agertzen da, benetako izenak duen pribatasuna izateko “Haur” izena dute elkarrizketatu guztiek, eta jarraian zenbatgarren haurra den: Haur-1, Haur-2... (transkribapenean bertan ere, haurrengana zuzentzerako orduan izen hori azaltzen da haurren pribatutasuna gordetzeko). Horren ostean, haurren adina agertzen da (4-7 urte bitartekoak guztiak). Azkenik, etxetik dakarten ama hizkuntza zein den azaltzen da. Grabazioen eta transkribapenen arteko lotura finkatzeko, formatu berdinean izendatuta daude fitxategiak.

Jarraian, adibide gisa, transkribapen bat jarri dut, arestian aipatutakoa argiago ikusteko.

“Haur 1”: 6 urte (guraso euskaldunak)

N: Egunon “Haur 1”!
 H: Egunon!
 N: Zemat urte (d)akazu zuk?
 H: Nik sei urte akat.
 N: Sei urtetxo (d)akazu?
 H: Bai
 N: Eta zeñe(g)az bixi zaz?
 H: Neure ama(ga)z, neure aita(ga)z eta neure arrebi(ga)z
 N: Eta zelan deitzenda arrebi?
 H: Udane
 N: Udane, eta zemat urte (d)akar udanek?
 H: Hiru
 N: Hiru urte?
 H: Bai
 N: Eta ze gustaten gatzu etxi etxin?
 H: Jolastu eta tele(bista) ikusi.
 N: Tele(bista) ikustezu? Eta ze ikustezu tele(bista)n?
 H: Ba... udane eta neure gustoku
 N: Eta ze zer da bañe hori?
 H: Ba..
 N: Marrazki bizidunak eta?
 H: Ba.. doraemon eta
 N: Aaa
 H: Dora la esplodadora eta
 N: Bai ee
 H: Bai
 N: Bale. Eta ze jateko gustaten gatzu zuri
 H: Makarroik, arroza eta espaguetisak.
 N: Bai? Eta txikixaua ziñanin ze gustaten gatzun?
 H: Mmm... horretzek hirurak
 N: Horretzek hirurak? Ezti aldatu gustuk?
 H: Ez
 N: Ez eee?
 H: Mm.. ondiokan ez
 N: Igual handixaua zazenin aldatu engoriz
 H: Bai
 N: Oso ondo. Bale eta hamen ikustezune komikixe..
 H: Bai
 N: Kontakoztazu ze pasaten dan?
 H: Bale
 N: Aber

H: Ba gixon batek (d)akar pipa bat eta hazur bat eta nik pentsatendot ee hazurre dule botatea.
 Bai bota einddau bañe gero txakurre etortenda kentzeta pipi eta gero bota etxendau txakurrak.
 N: Bota eitza pipi?
 H: Baiii
 N: Apartea?
 H: Bai
 N: Da ee ondarrun dazen txakurrak hori aldabe ein?
 H: Ez
 N: Pipi bota? Ez ezta?
 H: Ez ze hau tente ra eta bestik ezinddabe
 N: Eta zeatxik pentsatezu botatzala pipi?
 H: Berak botatzalako hazurre
 N: Klaro eta berai ezgako gusta apartea botati ezetz?
 H: Ez berai nahitzan bota
 N: Klaro oso ondo. Oso ondo "Haur 1"! Kontakoztazu on zeoze barregarrixte pasa gatzune zeuri?
 H: Eztai batik
 N: Ez? Ixe ezgatzu pasa lagunakin ee ba igual jolastordun ero barregarrixte?
 H: Eon bixkatin laga pentsaten
 N: la pentsa
 H: Baaa (...) baiii!!!
 N: la konta
 H: Ba geuazen jolasten ez?
 N: Bai
 H: Eta ee gixuzen korrikan, harrapaketan.
 N: Bai
 H: Eta (...)
 N: Segi "Haur 1"
 H: Eta han gixuzen korrikan eta batek kaka zapaldu eta danak barrez eta barrez eta barrez...
 N: Bai?
 H: jajaja
 N: jajaja. Eta barrezguri emotzun? Zeu eziñalako ixan igual. Eta zeñek zapalduban? zeure lagunak?
 H: Bai
 N: Eta zer eukan gero?
 H: Usain txarra
 N: Usain txarra ezta zapatan? Imagina gero ha garbitxu biko baban
 H: Bua
 N: Buff jajaja
 H: Ero andereñuk
 N: Ero andereñuk. Oso ondo "Haur 1" bale
 H: Zemagarrenin zuz?
 N: Bostgarren galderan guz ia
 H: Bale

N: Ee nik on galdetukotzut ondarruko berbak bale? Eta zuk esanbirtazu zer nahiraben esan bai?

H: Bai

N: Ee zer nahirau esan "trunpalle"?

H: mmm.. ezta

N: Zer da "trunpalle"?

H: mmm

N: Nik esaten batzuk, ""Haur 1" ederra hasi (g)atzu trunpalle!". Zer da?

H: mmm.. ezta

N: Eztakixu zer dan "trunpalle"?

H: Ez

N: Ez? Eta nik esaten batzut ""Haur 1" zelako famau za!". Zer da "famau" ixati?

H: Baa famau ixati korrikan famau ixati baseball-en

N: Bañe ze nahirau esan famau? Zer zaz ela txarra?

H: Ez, ona

N: Ona zaz ela ez? Gauza baten. Oso ondo. Eta nik esaten batzut, ""Haur 1" hori ati intzirrikatun da"?

H: Eztai

N: Intzirrikatun zer nahirau esan?

H: Ba bixkat apurtute rala

N: Apurtute?

H: Bixkat

N: A bixkat?

H: Bixkat ba zintzilik morun

N: aaa

H: Zintzilik morun

N: A dindiliske morun ez bixkat?

H: Baii zintzilik

N: Erdi apurtute

H: Bai

N: Aa oso ondo. Eta...

H: Seigarrena?

N: Eon. Aber nik esaten batzut hau maxe, hau maxe eongo bazan apartia zelan esango zintzan?

Hau esan baik

H: Han da

N: Bañe arbela zelan esango zintzan?

H: hor.. han da arbela

N: Bañe ze arbela?

H: Hor.. ha arbela, han da

N: Ha arbela. Oso ondo

H: Ha arbela, han da

N: Ha arbela han da. Bale ia atzanengoko galdera aia gaz. Ia kontabirtazu on ze datorren astin ya oporrak hartezuz

H: Bai

N: Da ze engozu udan?

H: Eee hondartza jun, neure eune ospatu eta launakin ibili jolasten
 N: Da noiz de zure eune?
 H: Uztailak 22
 N: Ala uda-udan
 H: Bai
 N: Osea plaxan eongoza zihur baietz?
 H: Bai
 N: Ala
 H: Moby dick-en usteot
 N: Bai?
 H: Bai bañe ekainak 26 engorou ee
 N: Aa ospakizune?
 H: Baii
 N: Aa
 H: Ekainak 26
 N: Eta zeintzuk ospatukoze zeure familixakuk ala gelakuk pebai?
 H: Gelakuk
 N: Aa ke wai. Eta ni inbitata naz?
 H: Mmm ez
 N: Ezz
 H: Neure gelakuk esandot
 N: jajaja. Oso ondo "Haur 1" ba listo amatxurou, erreza baietz?
 H: Bai. Eta on zer engot?

2.5. Azterketa linguistikoa

Azkenik, grabazio horiek transkribatu ostean, azterketa linguistikoa egin da hizkuntzaren bi aspektu kontuan izanik.

- **Hitz jarioa:** hurrek 10 segundutan zenbat hitz esaten duten neurtu da. Jarraian ama hizkuntza eta adinaren arabera konparaketak egin eta emaitzak aztertu direlarik.
- **Lexikoa:** etxetik hizkuntza ezberdinak dakartzaten haurrak elkarrizketatu ditudanez, herriko hiztegiaren ezagutza neurtu dut. Horretarako, eta herriko hiztegi ofizialik ez dagoen kasuan, Ondarroako biztanle talde batek sortutako blog⁶ batean aurkitu nuen hitzen esanahi errealak, haurren erantzunekin konparatzeko. Ondoko lerroetan aukeratutako hitzak eta beraien esanahia:

⁶ <http://ondarruberbetan.com/>

- **Trunpalle:** *Kolpe baten ondorioz bekokian irteten den koskorra. Burukoa nahiz beste nonbaitekoa koskorra zen; bekokikoa trunpalle. Saka eitze; bekokixaz paeta jorau te trunpallak urtetza (Bultza egin diote; bekokiaz horma jo du, eta koskorra irten zaio).*
- **Famau:** *Abila, trebea. Edozertan (kirolean, lanean, ikasten, zeinahi tresna erabiltzen) abilezia duenari ezartzen zaio adjektibo hau. Zalantzarik ez dago berbak hor duela erroa, baina, guk ematen diogun adierak, “fama” nahiz “famatua” (sonatua) berbarekin ez du zerikusirik.*
- **Intzirrikatun:** *Ateari zirrikitua utzita, erdi zabalik, erdi itxita. Ati intzirrikatun laga neban pauso otsa obetua entzuteko (Ateari zirrikitua utzi nion pauso hotsak hobeto entzuteko). Honen sinonimoa: intzirrikaturan. Ati intzirrikaturan laga genduk apropos (Ateari zirrikitua utzi genion nahita). Intzerrekatun ere entzun daiteke.*

2.6. Proposamen didaktikoa

Azterketa linguistikoa egin ostean, hurrengan atzematen diren ahuleziak edota akatsak bideratzeko asmoz, ikasgelan bertan haurren jarioasuna lantzeko ariketa baten beharra zegoela ikusi nuen. Proposamen didaktiko hau, lan honen “ondorioak” atalean dago irakurgai, izan ere ariketa horren zergatia ulertu ahal izateko lehenengo azterketa linguistikoaren emaitzak aztertzea ezinbestekoa da.

3. ONDARROAKO HAUR HEZKUNTZAKO HIZKERAREN AZTERKETA

Atal honetan grabaketen bidez lortutako corpusaren emaitzen azterketa linguistikoa egingo da. Azterketa hau egiteko taulak erabiliko dira, eta corpusean oinarrituta emaitzak bertan azalduko dira. Bukaeran, emaitza horien ondorioak aterako dira.

3.1. Hitz jarioa

Haurren hitz jarioa neurtzeko eta emaitzak atera ahal izateko, beraiei egindako inkestaren galdera batean zentratu naiz. Galdera hori euren bizipen barregarri bat kontatzea datza, hor ikusten baita garbien haurren hizkera

naturala, hots, bat-batekoa. Neurketa hau egiteko lau haur bakarrik hartuko ditugu oinarri gisa, eta bi taulatan banatuko dira, ama hizkuntzaren arabera.

Neurketa hau gauzatzeko 10 segundotan zenbat hitz esaten duten neurtuko da. Denbora hain laburra hartu izanaren arrazoi bakarra, ez dute denbora hori baino luzeago hitz egiten haur batzuk nagusiaren laguntza gabe, eta konparaketa egiteko denbora tarte bera hartu beharra zegoen.

HAURRA	ADINA	AMA HIZKUNTZA	HITZ JARIOA
“Haur 3” (4’25 - 4’35)	7 urte	Euskara	20 hitz/10s
“Haur 11” (2’22 - 2’32)	6 urte	Euskara	16 hitz/10s

1.Taula. Ama hizkuntza EUSKARA duten haurren jarioa

HAURRA	ADINA	AMA HIZKUNTZA	HITZ JARIOA
“Haur 2” (4’02 - 4’12)	7 urte	Erdara	12 hitz/10s
“Haur 4” (4’35 – 4’45)	6 urte	Erdara	13 hitz/10s

2.Taula. Ama hizkuntza ERDARA duten haurren jarioa

Argi dago, etxetik euskaldunak diren haurren hitz jarioa handiagoa dela besteekin alderatuz gero. Adinaren araberrako konparaketa egitean, aldiz, bigarren taulan ikus daiteke 6 urteko haurrak 7 urtekoak baino hitz gehiago esaten dituela, eta gainera ama hizkuntza euskara duen 6 urtekoarekin aldetuta ez dagoela ezberdintasun nabarmenik, baina horrek arrazoi bat dauka. Transkribapenetara jo ezker, bertan ikus daiteke haurrak nagusiarekin feedback-a behar duela istorioarekin jarraitzeko, eta ez dagoela ziur esaten duenarekin, eta hori dela eta errepikapenak erabiltzen ditu. Hona hemen “Haur4”k esaten duen esaldia:

- *Lagun bateaz jolasten neuan ez? Ezcutaketan, ezcutaketan jolasten neuan, itsas aurreko parkin ez?* [13 hitz/10s]

Hemen ikus daiteke, haurren esaldia errepikapenetan oinarritutako esaldia besterik ez dela, eta horrez gain nagusiaren oniritzia eskatzen duela behin eta berriro istorioarekin jarraitu ahal izateko “ez” galdera erabiliz.

Hortaz “Haur4”ren esaldi honi errepikapenak kenduz gero eta “ez” galdera ezabatuz gero, honela geratuko litzateke esaldia:

- *Lagun bateaz jolasten neuan ezkutaketan itsas aurreko parkin.* [8 hitz/10s]

Ezberdintasuna nabarmena da, eta horrek erakusten du, euskara ama hizkuntza bezala duten haurren hitz jarioa handiagoa dela, eta adinaren arabera zenbat eta nagusiago izan, jarioa ere handituz doala.

3.2. Lexikoa (hiztegia)

Elkarrizketaren bidez, haurrek ezagutzen duten hiztegia neurtu da. Horregatik galdetegian Ondarroako hiztegi berezitik 3 hitz aukeratu eta hauei buruz zer dakiten galdetu zaie. Ondarroako Udaleko Euskara Batzordeak 2014.urtean “Ondarruko berbak”⁷ izeneko bideo bat kaleratu zuen, zeinetan Ondarroako biztanleak (haurrak, nerabeak, nagusiak...) hitz hauen inguruan galdetuak diren. Baina bideo honetan azaltzen direnak jaiotzaz herrikoak dira, hau da, ez dago ama hizkuntza euskara ez duenik.

Hori dela eta, elkarrizketatutako haurren artean ama hizkuntza ezberdina duten haurrak daudela kontuan izanda, hauen ezagutza zenbaterainokoa den aztertu da, eta ea alderik badagoen ama hizkuntza euskara dutenekin alderatuta.

Hurrengo taulan, ama hizkuntzaren arabera zatitu dira haurrak, esan beharra dago, erdara ama-hizkuntza duten bi haur falta direla taulan, baina beraien pribatutasuna gordetzeko galdera horiek agertzen diren grabaketa ezabatu egin da, eta hortaz ez dago transkribatuta.

⁷ “Ondarruko berbak” <https://www.youtube.com/watch?v=PDV-uEo6CiU>

AMA-HIZKUNTZA	HAURRA	ADINA	HITZAK		
			Trunpalle	Famau	Intzirrikatun
EUSKARA	H1	6 urte		X	X
	H3	7 urte	X	X	X
	H6	6 urte	X		
	H8	5 urte	X		X
	H9	4 urte	X		X
	H11	6 urte	X		X
ERDARA	H2	7 urte		X	
	H4	6 urte		X	X
	H5	5 urte		X	
	H10	5 urte		X	

3.Taula. Ondarruko hiztegiaren ezagutza aztertzeko taula.

Aurreko taulan ikus daiteke, etxetik euskaldunak diren haurren kasuan, “trunpalle” eta “intzirrikatun” hitzaren esanahia ia % 100ak ezagutzen duela, eta etxeko hizkuntza erdara dutenen kasuan batek ez ezik besteek ez dutela esanahia ezagutzen. Aldiz, “famau” hitzaren kasuan, alderantziz gertatzen da, hots, erdaradunen %100ak ezagutzen du hitza, eta euskaldunen ehuneko txiki batek bakarrik.

Nire ustez horren arrazoia hitzen zailtasunean datza, hau da, erdaldunen kasuan, “trunpalle” hitza egunerokotasunean entzungo duten arren ez diote arretarik jarriko, ez baitauka erdarazko hitzen itxurarik, eta norbaitek hitzaren sinonimoa esateko zain egongo da “txintxoia”, adibidez. Gainera hitz horiek ahoskatzeko ere baliteke zailtasunak izatea, Ondarroa ez den Euskal Herriko beste pertsona batek esatea ere zaila da eta.

Kasu honetan, adinak ez dauka zerikusirik hitzen ezagutzarekin, etxean edota kalean hitz horiei ematen zaien erabilerarekin baizik.

4. ONDORIOAK

Aurreko orrialdeetan ikus daitekeen bezala, ama hizkuntza euskara duten haurrek, bai jarriotasunean eta bai hiztegiaren ezagutzan ere erraztasun gehiago dute. Baina esan daiteke guztiak orain hasi direla hizkuntzaren berri izaten, hots, 4-7 urte bitarteko haurrak dira eta oraindik etxetik dakarten ezagutza da gehienbat, Haur Hezkuntzan ez baitute hizkuntzaren araurik ikasten, honen erabileran gauzatzen da bakarrik eta gehienbat irakaslearen input-ean ipuinak eta istorioak kontatzerakoan.

Ama hizkuntza erdara duten haurren kasuan eta euskaldunen kasuan ere herriko hitz bereziak ikasi eta erabiltzeko eskolan ez ezik herriko kaleetan ere hitz horien erabilera haztean datzala uste dut. Horren harira Ondarroako Udalak abian jarri du herriko hizkera indartzeko “Ahuakemonala”⁸ izeneko egitasmo berritzailea sortu du. Bertan, eta herritar guztietara iristeko asmoarekin, app baten bidez hitz eta esaera bereziekin “jolasteko” aukera egongo da. Oraindik bere lehen pausuak besterik ez ditu eman, baina itxura paregabea dauka, eta aurretik aipatu bezala, haurrek herriko hiztegia ikasteko oso interesgarria izan daiteke proiektu hau. Gainera, nire ustez, herriko ikastetxeek ere egitasmo honetan protagonismoa izan beharko lukete, haurrak baitira herriko hizkera hori etorkizunera gidatuko dutenak.

Beste alde batetik, nik proposamen didaktiko bat martxan jarriko nuke haurren jarriotasuna bultzatzeko. Izan ere, ama hizkuntza erdara duten haurren kasuan hitz egiteko grina hori sumatzen da; baina hiztegi falta dela eta, edota lotsagatik, isilik geratzen dira eta nagusiaren onarpenaren zain geratzen dira, esaten ari direna ondo egiten ari diren ala ez jakiteko. Horregatik ikastetxean bertan jarriotasun hori handitzeko eta hizkuntzaren erabilera bultzatzeko, Haur Hezkuntzako ikasgeletan (nahiz izanez gero Lehen Hezkuntzako geletan ere) astean bitan, arratsaldeetako saioetan “Istorioen ordua” izeneko tailerra martxan jarriko nuke. Tailer horiek ordu eta erdikoak izango liriateke. Bertan irakasleak telebistako aurkezlea balitz bezala egun horretan hitz egingo duten

⁸ Ahuakemonala egitasmo berritzailea: <http://www.ahuakemonala.eus/>

istorioen gaia aurkeztuko luke. Haur bakoitzak bere denbora izango luke gaiaren inguruan istorio bat asmatu eta ikaskideen aurrean aurkezteko. Ez litzateke derrigorrezkoa izango parte hartzea, baina irakasleak haurrak motibatuko lituzke euren interesekoak diren gaiak aukeratuz, hots, animaliak, marrazki bizidunetako pertsonaia ezagunak, txistekak kontatzea... Hasiera batean baliteke haurren parte hartzea txikia izatea, baina egunak aurrera joan ahala eta beraien motibazioa handituz gero, parte hartzea % 100 izatea lortu beharko litzateke. Tailer hauei esker jarioetasuna handituko lirateke, beti ere konstantziaz eta irakasleak hizkuntzarekiko maitasun hori erakutsiko balu.

Ikerketa lan honi esker, hizkuntza bat ikastearen hasierako urratsak aurrez-aurre ikusi ahal izan ditut, eta hori dela, hizkuntzaren etorkizuna erabilerak bermatzen duela ikasi dut, Jose Anton Artzeren esaldi ezagunak dioen bezala “Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik”. Nire ustez, bai euskaldun zaharrok eta baita euskaldun berriek ere esaldi hau egunero izan beharko genuke buruan, ez baikara ohartzen eskuartean daukagun eta gurea den altxorraz: Euskara. Beraz, zaindu eta maitatu dezagun eta batez ere, erabil dezagun.

5. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Arrieta, J. L. G. (2005). Ahozko euskara: dakiguna eta darabilguna. *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak= Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca= Travaux et actes de l'Academie de la Langue basque*, 50(2), 747-764.
- Etxaburu, M (2005) Lan metodologia: Transkripzioak. *Ondarruko arrantzaleen lexikoa eta toponimia* (27-28. or.) 2015-05-29 http://www.euskara.euskadi.net/appcont/tesisDoctoral/PDFak/Mikel_Etxaburu_TESI.pdf- tik hartua (2015-07-10)
- Hualde, J.I. (1996): Accentuation and empty vowels in Ondarroa Basque: Against the concept of phonological derivation. *Lingua* (197-206 or.) United States: University of Illinois
- Llanso, D. (1990). Animaladas. *Revista Billiken*. <http://www.chicocadaver.com.ar/2006/11/empezando-por-algo.html> (2015-06-04)
- Maia, J. (2006). Estandarra eta dialektoak nola ulertu eta tratatu irakaskuntzan. *Revista de Psicodidáctica/Journal of Psychodidactics*, 2(11-12).
- Ondarroako Udala (2011). Euskararen kale erabileraren neurketa: emaitza nagusiak. http://www.ondarroa.eu/euES/Zerbitzuak/Euskara/Documents/2011_euskararen-kale-erabilera-neurketa.pdf (2015-07-20)
- Olabarri, G. A. (1997). Ahozko testuak transkribatzeko irizpideak. *Uztaro*, 87, 94.
- UNICEF (2006). Recomendaciones a tener en cuenta en una entrevista. *Unidos por la infancia* http://www.unicef.org/argentina/spanish/2.Entrevistar_a_los_ninos_y_ninas.pdf
- Zuazo, K. (2008). *Euskalkiak: euskararen dialektoak*. Elkarlanean.

Interneteko erreferentziak

- <http://ondarruberbetan.com/>
- www.euskalkiak.eu
- www.ahotsak.com

ERANSKINAK


1. Eranskina. Galdetegia

- **Hasiera: Bizitza pertsonala**

1. Zenbat urte daukazu?
2. Norekin bizi zara?
3. Etxea zaudenean, zer egitea gustatzen zaizu?

- **Istorioak kontatzen**

4. Komikia: Komiki honetan gertatzen dena kontatuko al didazu?
5. Zuri gertatu zaizun zerbait barregarria kontatuko didazu?



- **Lexikoaren ezagutza**

6. Zer esan nahi dute Ondarruko berba hauek?
 - “Trunpalle”
 - “Famau”
 - “Intzirrikatun”

- **Amaiera: Etorkizuna**

7. Datorren astean udako oporrak hartzen ditugu, zer egingo duzu udan?